BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Urriak 30 (12.00etan). Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea

# Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatua Artxandako tuneletako segurtasun arduradunaren izendapenari buruzko argibideak emoteko batzorderatuko da

- **BI-625 errepideko sarbideak hobetzeko Ugaoko Udalagaz izenpetutako Hitzarmenari buruzko eta Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideko desjabetzeei buruzko argibideak be emongo deutsez Itziar Garamendik batzordekideei.**
- **Santo Domingoganan Aldundiak hormigoizko erdibitzailea jartea eskatzen dauen Arauz Besteko Proposamen bat be eztabaidatuko da.**

*Bilbon, 2012ko urriaren 29an*

Datorren martitzenean, urriaren 30ean, Bizkaiko Batzar Nagusietara joango da Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatua, Itziar Garamendi, oposizinoko taldeek eskatuta, bere Sailaren ardurapeko zenbait gairi buruzko argibideak emotera. Sei egun igaro ondoren, Diputatu andrea barriro be joango da Batzordera Artxandako tuneletako segurtasun arduradunaren izendapenari buruzko argibideak emotera eta BI-625 errepideko sarbideak hobetzeko Ugaoko Udalagaz izenpetutako Hitzarmena azaltzera. Era berean, Garamendi andreak azaldu egingo dau zertan dagoan Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea egiteko lurren desjabetzeen inguruan gertatukoa.

Bildu Taldeak Foru Diputatu andrearen batzorderatzea eskatuta dauka argitu dagian Artxandako Tuneletako segurtasunaren arduradun SENER ingeniaritza enpresako teknikari bat izendatu izana. Talde horrek jakin gura dau ea zenbat ordainduko jakon, ea zergaitik lan hori funtzionario publikoek ezin daben egin eta ea izendapen horrek ez ete dakarren funtzinoen bikoizketea Sailari berari atxikitutako pertsonalagazko.

Horrezaz ganera, Socialistas Vascos Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak jakin gura dabe zein dan Diputatu andrearen eritxia Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea egiteko Larraskitun egindako lurren desjabetzeak dirala-ta Bizkaiko Fiskaltzak abierazotako diligentzien inguruan. Batzorderatze-eskari biok uztailaren 9an aurkeztu ziran, eta egun batzuk beranduago jakin zan Bilboko Instrukzino Epaiteak erabagi ebala norbanako batek Aldundiaren arduradunen aurka eta Bilboko Udalaren funtzionari baten aurka aurkeztu eban prebarikazino-salaketea artxibatzea, hain zuzen be Saihesbidea egiteko beharrezkoa zan Hormigones Vascos enpresaren porlanerako planta bat jarteko lurrak desjabetu eutsiezalako aurkeztutakoa.

Beste alde batetik, Bildu Taldeak Garamendi andrearen batzorderatzea eskatuta dauka ezagutzeko N-625 errepiderako sarbideak Zollorako tunelpean hobetzeko Herri Lan eta Garraio Sailaren eta Ugaoko Udalaren artean izenpetutako Hitzarmenaren inguruko gora-beherak. Talde horrek uste

dau, udalerrirako sarbideei buruz LEBER enpreseak 2012ko apirilean egindako txosten baten oinarrituta, Aldundiak eta Udalak bultzatutako proiektu hori ez datorrela bat "ustez" herriak euki eta Hitzarmenean aitatzen diran beharrizanakaz, eta proiektu horren bitartez ez dala jasoten "Ugaoko herritarrek bide zati hori oinezkoentzako bihurtzearen inguruan adierazo daben borondatea".

Batzordea eguerdiko 12:00etan hasiko da Batzar Nagusien Bilboko egoitzan eta Bilborako Santo Domingoko sarrereari buruz Bizkaiko Talde Popularrak orain hilabete inguru aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatuko dau lehenengo-lehenengo. Talde horrek gura dau Aldundiari eskatu dakiola hormigoizko erdibitzailea jartea Santo Domingoko ganan, ikusita azkenaldiotan izan diran istripu bitan gidari bi hil dirala.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

30 de octubre (12.00 horas). Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales

# La Diputada de Obras Públicas y Transportes comparece para informar del nombramiento del responsable de seguridad de los túneles de Artxanda

- **Itziar Garamendi dará cuenta también a los miembros de la Comisión, del convenio firmado con el Ayuntamiento de Ugao para la mejora de los accesos a la BI-625 y de la expropiación de unos terrenos para construir la Supersur.**

- **Se debatirá una proposición no de norma para que la Diputación instale una mediana en el acceso viario del alto de Santo Domingo.**

*Bilbao, a 29 de octubre de 2012*

La Diputada Foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, comparecerá en las Juntas Generales de Bizkaia mañana martes, 30 de octubre, a petición de los grupos junteros de la oposición, para explicar algunos asuntos relacionados con su gestión al frente del departamento. Seis días después de comparecer en la sede parlamentaria, la diputada vuelve a la Comisión para informar del nombramiento del responsable de seguridad de los túneles de Artxanda, así como para responder a los grupos junteros en relación al convenio firmado entre su departamento y el Ayuntamiento de Ugao para mejorar los accesos a la BI-625. Garamendi aclarará también la expropiación de unos terrenos para construir la "Supersur" que fueron motivo de denuncia.

El Grupo Bildu ha pedido la presencia de la Diputada en la cámara vizcaína con la intención de conocer todo lo que rodea al nombramiento del responsable de seguridad de los túneles de Artxanda, cargo que ha recaído en un técnico de la ingeniería SENER. La coalición abertzale quiere conocer sus atribuciones salariales, el motivo por el que este cargo no ha podido ser asumido por un funcionario público y si existe duplicidad de funciones con respecto a personal adscrito ya al propio Departamento.

Por su parte, los grupos Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno quieren saber la opinión de la responsable foral con respecto a las diligencias que la Fiscalía de Bizkaia abrió en relación a una expropiación de terrenos en Larraskitu (Bilbao) para construir la Variante Sur Metropolitana. Las dos peticiones de comparecencia se presentaron el 9 de julio, días antes de conocerse que el Juzgado de Instrucción de Bilbao había archivado la causa presentada por un propietario que denunció de prevaricación a responsables de la Diputación y a una funcionaria del Ayuntamiento de Bilbao, por permitir levantar en sus terrenos expropiados una planta de la empresa Hormigones Vascos necesaria para la construcción de la "Supersur".

Por otro lado, el Grupo Bildu ha solicitado también la presencia de la máxima responsable foral de carreteras de Bizkaia con el fin de conocer algunos detalles del convenio firmado entre su departamento y el Ayuntamiento de Ugao para mejorar los accesos a la BI-625 en el Túnel de Zollo. Apoyándose en un estudio de los accesos al municipio realizado por la ingeniería LEBER en abril de 2012, este grupo considera que el proyecto planteado por la Diputación y el municipio no se ajusta a la supuesta “necesidad” alegada en el Convenio, ni a la “la voluntad popular expresada por el pueblo de Ugao en lo que se refiere a la peatonalización de este tramo”.

La Comisión arrancará a las 12 del mediodía en la sede bilbaína de las Juntas Generales con una proposición no de norma planteada por el Grupo Popular Vizcaíno hace apenas un mes en relación a los accesos a Bilbao por el alto de Santo Domingo. Ante los accidentes de tráfico acontecidos en los últimos meses que han costado la vida a dos personas, este grupo quiere recabar el apoyo de la cámara para solicitar a la Diputación la instalación de una mediana de hormigón.